

ALEGIA / Ipuin kontalaria eta antzerkia gaur eta bihar Alegian

ALEGIA. DV. Azaro Kulturalaen baitan atzo Ibon Azpilikuetak perretxikuei buruzko bigarren hitzaldia eskaini zuen. Euskal Herriko Perretxiku jangarri eta pozointsuak izan zen hitzaldiaren izenburua eta aurrekoa ez bezala, atzokoa helduei zuzendua egon zen. Aste honetako bigarren ekitaldia gaur bertan izango da. Arratsaldeko 6etatik aurrera, Maite Francok ipuin kontaketa saioa eskainiko du Udal Liburutegian.

Eta aste honi amaiera emateko, bihar gaueko 22:30etan Txalo antzerki taldeak Erreleboa antzelana aurkeztuko du Kultur Etxeko batzar aretoan. Ekitaldi hau Kutxak sustatu eta finantziatzen du. Datorren astean amaituko da aurtengo Azaro Kulturala. Astelehenean, David Aprearen Idi probak argazki erakusketa zabalduko da arratsaldeko 19:30etan eta datorren abenduaren 5era arte egongo da ikusgai. Azkenik, asteazkenean,, hilak 29, Joxe Gastesi Alegiari buruz kontu kontari arituko da arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Bi ekintza hauek Kultur Etxeko batzar aretoan izango dira.